EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

## 2019KO IRAILAREN 26KO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAK

1. Bateraezintasunen Batzordearen irizpena, Maitane Ipiñazar Miranda, Miren Gallástegui Oyarzábal, Ander Rodriguez Lejarza, Diana Urrea Herrera eta Ibon San Saturnino Murua legebiltzarkideen bateragarritasun-egoeraren gainean. Eztabaida eta behin betiko ebazpena.
[11\01\01\00\00086]
[11\01\01\00\00087]
[11\01\01\00\00088]
[11\01\01\00\00089]
[11\01\01\00\00090]

Irizpena onetsi da.

## ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO EL DÍA 26 DE SEPTIEMBRE DE 2019

1. Debate y resolución definitiva sobre el dictamen formulado por la Comisión de Incompatibilidades en relación con la situación de compatibilidad de las parlamentarias y parlamentarios Maitane Ipiñazar Miranda, Miren Gallástegui Oyarzábal, Ander Rodriguez Lejarza, Diana Urrea Herrera e Ibon San Saturnino Murua. [11\01\01\00\00086]
[11\01\01\00\00087]
[11\01\01\00\00088]
[11\01\01\00\00089]
[11\01\01\00\00090]

Se aprueba el dictamen.

**2. Bateraezintasunen Batzordearen irizpena, Euskal Irrati-Telebista herri-erakundeko Administrazio Kontseiluko hautagaiaren bateragarritasun-egoeraren gainean egina. Irizpenari buruzko eztabaida eta behin betiko ebazpena, eta, hala badagokio, kontseilu horretako kidea izendatzea.** [11\11\07\03\00001]

Irizpena onetsi da eta Oscar Torres Lavid jauna Euskal Irrati Telebista herri-erakundearen Administrazio Kontseiluko kide izendatu da.

**2. Debate y resolución definitiva sobre el dictamen formulado por la Comisión de Incompatibilidades en relación con la situación de compatibilidad del candidato propuesto y, en su caso, designación de miembro del Consejo de Administración del ente público Radio Televisión Vasca.** [11\11\07\03\00001]

Se aprueba el dictamen y se designa a D. Oscar Torres Lavid miembro del Consejo de Administración del ente público Radio Televisión Vasca.

**3. Mozioa, Mikel Otero Gabirondo EH Bildu taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, berotegi-efektua eragiten duten gasen bilakaerari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\03\00\00144]**

EA-NV, EH Bildu, EP, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

24/2019

"1. Legebiltzarrak larrialdi klimatikoko egoera deklaratzen du.

2. Legebiltzarrak konpromisoa hartzen du beharrezko ekimenak sustatu, bultzatu eta adosteko, larrialdi klimatikoaren aurrean anbizioz eta premiaz jardute aldera.

3. Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio larrialdi klimatikoko egoera zeharka islatzeko plan eta programa guztietan, bai eta aurrerantzean egingo dituen lege-proiektuetan eta aurrekontuetan ere.

4. Legebiltzarrak eskatzen du 2020ko Aurrekontuen aurreproiektuan ikuspegi klimatikoa txertatzeko eta beharrezko aurrekontu-sailak proposatzeko, larrialdi klimatikoko egoerak eskatzen dituen anbizioa eta premia ahalbidetuko dituzten ekintza sektorial guztiak abian jartze aldera.

5. Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta euskal erakunde guztiei eskatzen die, bakoitzak bere eremuan, planak eta politikak egin ditzatela 2050 baino lehenago lortzeko Euskadiko Autonomia Erkidegoan karbonoari buruzko neutraltasuna, eta esfortzu gehigarriak egin ditzatela data hori 2040. urtera aurreratzeko.

6. Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta euskal erakunde guztiei eskatzen die larrialdi klimatikoari aurre egitea helburu duten neurri guztiak herritarrekin adostu ditzatela parte hartzeko prozesu sozial zabalen bitartez".

**3. Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Mikel Otero Gabirondo, parlamentario del grupo EH Bildu, sobre la evolución de los gases que provocan el efecto invernadero. [11\11\03\00\00144]**

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EH Bildu, EP, SV-ES y PV-ETP.

24/2019

"1. El Parlamento declara la situación de emergencia climática.

2. El Parlamento se compromete a promover, impulsar y acordar las iniciativas necesarias a fin de actuar con ambición y urgencia frente a la emergencia climática.

3. El Parlamento insta al Gobierno Vasco a reflejar la situación de emergencia climática de manera transversal en todos los planes y programas, así como en los proyectos de ley y presupuestos que elabore en adelante.

4. El Parlamento insta a incorporar en el anteproyecto de Presupuestos de 2020 la perspectiva climática y a proponer las partidas necesarias para poner en marcha todas las acciones sectoriales que posibiliten la ambición y urgencia que requiere la situación de emergencia climática.

5. El Parlamento insta al Gobierno Vasco y a todas las administraciones vascas a que acometan, cada uno en su ámbito, planes y políticas que posibiliten lograr la neutralidad en carbono de la Comunidad Autónoma de Euskadi antes de 2050, realizando esfuerzos suplementarios para adelantar esa fecha a 2040.

6. El Parlamento insta al Gobierno Vasco y al resto de las instituciones vascas a que todas las medidas dirigidas a hacer frente a la emergencia climática sean acordadas con el resto de la población mediante procesos amplios de participación social".

**4. Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, euskal eskola publikoan eskolaratzeko eskubidea bermatzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00310]**

EA-NV, EH Bildu, EP, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

86/2019

"Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari eskatzen dio:

1. Ausarki egin dezala kalitatezko eskola publiko inklusiboaren, ekitatiboaren eta berritzailearen aldeko apustua, gure ikastetxeetan oreka, gizarte kohesio eta interkulturalitate handiagoa lortze aldera.

2. Jaiotza-tasa baxuaren eta matrikula-jaitsieren –bereziki, hasierako hezkuntza-mailetan– ondorioz neurriak hartzeko orduan, hezkuntza-proiektuaren balorazioa egin dezala eta lehentasuna eman diezaiola auzoko eta gertuko ikastetxe publikoaren filosofiari.

3. Mekanismoak ezar ditzala inguruko ikastetxe eta erakunde guztiek ahalegin partekatua eta ekitatiboa egin dezaten ikasleen aniztasunaren arretan.

4. Beren seme-alabentzat nahi duten ikastetxea eta hezkuntza-proiektua aukeratzeko familiek duten askatasuna eta eskubidea benetan bermatze aldera, eutsi diezaiela ikuskaritza-jarduerei, bai lurralde-batzordeetatik, bai Hezkuntza Ikuskaritzatik, euste horren helburua delarik indarrean dauden arauetan jasotako hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsonen eskubide eta betebeharren ariketa bermatzea eta ez dadila eskolaratze-kontzeptuagatik ezer kobratu, salbu eta eskain litezkeen zerbitzu osagarriengatik".

**4. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, relativa a la garantía del derecho de escolarización en la escuela pública vasca. [11\11\02\01\00310]**

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EH Bildu, EP, SV-ES y PV-ETP.

86/2019

"El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación:

1. A apostar decididamente por una escuela pública inclusiva, equitativa e innovadora de calidad para lograr un mayor equilibrio, cohesión social e interculturalidad en nuestros centros educativos.

2. A que a la hora de adoptar decisiones derivadas de la baja natalidad y el descenso de matrícula especialmente en los niveles educativos iniciales haga una valoración del proyecto educativo y se priorice la filosofía de centros públicos de barrio y cercanos.

3. A establecer mecanismos para que todos los centros educativos y entidades del entorno hagan esfuerzos compartidos y equitativos en la atención de la diversidad del alumnado.

4. A, con el fin de garantizar de manera efectiva la libertad y el derecho de las familias para elegir libremente el centro y proyecto educativo que quieren para sus hijos e hijas, continuar con las actividades de inspección, tanto desde las comisiones territoriales como desde la Inspección Educativa, para garantizar el ejercicio de los derechos y deberes de las personas que conforman la comunidad educativa reconocidos por la normativa vigente y no se efectúe ningún cobro en concepto de escolarización distinto de los relativos a servicios complementarios que pudieran ofrecerse".

**5. Euskal Talde Parlamentario Popularrak egindako legez besteko proposamena, Bilboko Zabalburu ikastetxeko Logistika eta Garraioa zikloan A eredua bermatzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00608]**

EA-NV eta SV-ES taldeen osoko zuzenketa onetsi da.

87/2019

"1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko 4/2018 Legean oinarrituz, bermatu dezala euskal hizkuntzaren presentzia normalizatua lanbide-heziketaren sisteman, hizkuntza alorreko xedapen orokorrak aplikatuz, hezkuntza-jarduerak egiten dituztenek bi hizkuntza ofizialak modu egokian menperatzea bermatzeko, horretarako euskara eta gaztelaniaren eredu elebiduna zabalduz.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, Lanbide Hezkuntzako hizkuntza-planifikazioaren esparruan, eta ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-ereduaren egitura errespetatuz, jarrai dezala A ereduaren eskariari erantzuna ematen, eskari hori dagoen neurrian".

**5. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, relativa a garantizar en el colegio Zabalburu de Bilbao el modelo A en el ciclo de Logística y Transporte. [11\11\02\01\00608]**

Aprobada la enmienda de totalidad de los grupos EA-NV y SV-ES.

87/2019

"1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, con base en la Ley 4/2018, de Formación Profesional del País Vasco, garantice la presencia normalizada de la lengua vasca en el sistema de formación profesional, dando así aplicación a las disposiciones generales en materia lingüística, de forma que se garantice un dominio adecuado de ambas lenguas oficiales por parte de quienes realicen las actividades formativas, extendiendo para ello el modelo bilingüe de euskera y castellano.

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que en el marco de la planificación lingüística en la Formación Profesional, y respetando la estructura de modelo lingüístico de cada centro, siga atendiendo, en la medida en que la haya, a la demanda existente en el modelo A".

**6. EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, gizarte-ekimeneko ikastetxeen auziaren aurrean Hezkuntza Sailak gidaritza hartzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00590]**

EA-NV eta SV-ES taldeen osoko zuzenketa onetsi da.

88/2019

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultzatu dezala, gizarte-ekimeneko lan-hitzarmenaren parte direnekin, horretarako eskumena duen Lan Sailaren bitartekaritza.

Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari eskatzen dio aurrekontu-legearen testuinguruan moduluen eguneratzea azter dezala.

Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari eskatzen dio, bilakaera demografikoa kontuan izanda, birkokapen-akordioa bultzatu dezala enplegua mantentzeko eta kalitatea bermatzeko".

**6. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, relativa a que el Departamento de Educación tome el liderato en la cuestión de los centros de enseñanza de iniciativa social. [11\11\02\01\00590]**

Aprobada la enmienda de totalidad de los grupos EA-NV y SV-ES.

88/2019

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a impulsar con las partes del acuerdo de iniciativa social la mediación del Departamento de Trabajo competente en la materia.

El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación a analizar la actualización de los módulos en el contexto de la ley de presupuestos.

El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación a que, teniendo en cuenta la evolución demográfica, impulse un acuerdo de recolocación para mantener el empleo y garantizar la calidad".

**7. Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, kirolean emakumeen eta gizonen artean dagoen arrakalari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00611]**

EA-NV, EP, SV-ES eta PV-ETP taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

89/2019

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Emakunderekin elkarlanean, egin dezala analisi bat, aztertzeko zein egoeratan dagoen gaur egun emakumeen eta gizonen berdintasuna kirolaren eremuan eta maila guztietan, emakumeen kirola sustatzeko modu integralean egoki deritzon gomendioak izango dituena. Analisiak ez luke soilik jorratu behar emakumeen eta gizonen kirolerako sarbidea eta parte-hartzea; aitzitik, aztertu behar lituzke, orobat, bai entrenatzaileen soldaten datuak sexuka, bai instalazioen erabileraren datuak sexuka, kirol-eremu guztietan, erakunde publiko batetik dirulaguntzaren bat jasotzen duten klubak barne.

2. Egin ditzala gidak emakumeen erabateko inkorporazioari laguntzeko, ez bakarrik kirolaren eremuan, baita zuzendaritza- eta sektoreko zuzendaritza-eremuetan ere.

3. Bermatu dezala, euskal kirol-federazioei ematen dien dirulaguntzen baitan, klausulak eta irizpideak txertatzen direla emakumeak kirol federatuan sar daitezen sustatzeko.

4. Susta dezala berdintasun-estrategiak abian jartzea euskal federazioetan, formakuntzaren eta sentsibilizazio-kanpainen bidez, Euskal Kirol Federazioen Batasunarekin elkarlanean.

5. Jarrai dezala lanean gure euskal irrati-telebista publikoan kirol-informazioa emititzerakoan izaten den genero-arrakala komunikatiboa gutxitzeko".

**7. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, relativa a la brecha existente entre mujeres y hombres en el deporte. [11\11\02\01\00611]**

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EP, SV-ES y PV-ETP.

89/2019

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a:

1. Realizar, en colaboración con Emakunde, un análisis sobre la situación actual de la igualdad de mujeres y hombres en el sector deportivo a todos los niveles, con las recomendaciones que se consideren oportunas de forma integral para fomentar el deporte femenino. En el análisis se deben abordar no solo el acceso de las mujeres y hombres al deporte y su participación en él, sino también los datos relativos a los sueldos de las personas entrenadoras, por sexo, así como los de uso de las instalaciones por sexo en todos los ámbitos deportivos, incluyendo clubes que reciban algún tipo de subvención por una institución pública.

2. Realizar guías que contribuyan a la incorporación plena de las mujeres, no únicamente en el ámbito deportivo, sino también en los ámbitos de dirección y de dirección del sector.

3. Asegurar que, dentro de las ayudas que concede a las federaciones deportivas vascas, se incluyan cláusulas y criterios para fomentar la incorporación de las mujeres en el deporte federado.

4. Promover la puesta en marcha de estrategias de igualdad en las federaciones vascas, a través de formación y campañas de sensibilización realizadas en colaboración con la Unión de Federaciones Deportivas Vascas.

5. Seguir trabajando en la reducción de la brecha de género comunicativa que se da en la emisión de información deportiva en nuestra radio televisión pública vasca".